

## EUSKOTRENEK, APIRILAREN 6TIK AURRERA, TOPOKO ETA GASTEIZKO TRANBIEN ZERBITZUAK MURRIZTUKO DITU

Topoan, ohiko zerbitzuko errefortzuak kendu egingo dira eta %38ko murrizketa batera iritsiko da. Gasteizko tranbiari dagokionez, tranbiako errefortzuak kendu egingo dira eta zerbitzua %50ean murriztuko da.

COVID-19a dela eta, alarma egoeran zehar abian jarritako zenbait neurri eskaintzaren egokitze prozesuan, Euskotrenek datorren astelehenetik, apirilaren 6tik aurrera Topoaren (Lasarte Oria eta Irun Ficoba artean) eta Gasteizko Tranbiaren zerbitzuak murriztuko ditu.

Neurri hau Bizkaiko eta Gipuzkoako tren zerbitzuetan sartutako aurrekoei gehituko zaie, eta baita Bilboko eta Gasteizko tranbiena, Konpainiaren tren eta tranbia zerbitzuetan %45eko murrizketa globala lortuz. Horrez gain, Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundiekin eta Eibarko Udalarekin koordinazioan, azken aste hauetan Lurraldebus, Bizkaibus eta Udalbus (Eibar) sistematarako kudeatutako autobus zerbitzuen murrizketak sartzen joan dira.

COVID-19a eusteko ezarritako neurrien artean, Amarako (Donostia), Durangoko, Gernikako eta Zazpikaleakeko (Bilbo) Bezero Arreta Bulegoetan arreta presentziala bertan behera geratu da, jakinarazpen berrira arte itxita daudelako. Erabiltzaileek Euskotrenekin komunikatu nahi izanez gero, honako kanalak dituzte: 944 333 333 telefonoa; BABeko posta elektronikoak (oacdon@euskotren.eus // oaczaz@euskotren.eus // oacdur@euskotren.eus // oacger@euskotren.eus); kexak, iradokizunak eta erreklamazioak egin daitezkeen web orrialdea [www.euskotren.eus](http://www.euskotren.eus); twitterra, @euskotrenEJGV; eta app ofiziala.

Era berean, Euskal Trenbide Sarea-Red Ferroviaria Vasca (ETS) eta Euskotren trenetako eta tranbietako azpiegitura desberdinetan intentsitate handiko garbitasun lanak egiten ari dira, eta baita garraio publikoko zerbitzu desberdinen material mugikorreko parkean ere.

Igorpen data: 2020-04-03

